

STARTINNOVA: KOSTUEN EGITURA

Enpresa honek bi kostu desberdinetan banatzen da nagusiki: Kostu orokorrak eta Hasierako kostua (beharrezko inbertsioa).

-Kostu orokorrak: Gure enpresa funtzionamenduan mantentzeko hainbat motatako kostuak izango ditu: Zuzenak, zeharkakoak, finkoak, aldakorrak...

-Kostu zuzenak: Ordaindu beharreko diru finkoa, gure kasuan, erosi beharreko lurra izango da, gero tximistorratzak eraiki egingo diren lekua. Kokapenaren arabera ordaindu behar den kantitatea aldatuko da, herrialdearen legeen arabera edo beste arrazoiengatik. Tximistorratzen muntaketari dagokionez, lan eskua eta materialak ordaindu beharrekoak dira. Tximistorratzak, gutxi gora behera 5 tona izango ditueztelako, 6.000€ inguru balioko du bakoitzak.

-Kostu finkoak: Denborarekin aldatzen ez diren kostuak dira. Ez da inporta zuzena ala zeharkakoa den, bakarrik balio bera. Horren adibidea, gure enpresa sortzerakoan erabaki behar dugunean zein sozietate mota eraiki, prezio bat edo bestea kostatuko du. Zergak atal horretan sartzen dira.

-Kostu aldakorrak: Talde honen barruan materialen prezioa eta garraiatzearen garestitzea sartzen dira. Materialak eskaera/eskaintza orekaren bidez aldatuko dira prezioz. Batzuetan garestitzen eta beste batzuetan merketzen. Beste aldetik, garraiatu beharreko tartek luzeagoak edo motzagoak izango dira, eta hori prezioan nabarituko da. Garraiatzeko materialen edo tresnen pisua handitzean, beste garraio bide handiagoak behar izatean, etb... Aldaketa guzti hauek kostu aldagarri bat osatuko dute.

-Zeharkako kostuak: Kostu mota hau, enpresaren kostu zuzenak ez ezik, izena esaten duen moduan zuzenak ez diren kostuak dira. Hauek produktu baten ekoizpenean eragina dutenak dira eta beraz ezin dira egokitu produktu zehatz bati.

-Hasierako inbertsioaren kostua: Proiektu hau handia izateagatik, beharreko diru inziala oso garrantzitsua izango da. Diru kantitate handia behar izango da (lehen zehaztu dugun bezala, gure poltsikotik eta *crowdfunding* metodoaren bidez lortutakoa), baina enpresa finkatzen denean dirua arazo bat izateari utziko da. Gutxi gora behera, 4 milioi euro ipini behar izango dira (1 milioi € kide bakoitza) behar ditugun baliabide guztiak eskuratzeko. Hau da, 4 milioi € + inbertsioak.

